


Eguberri eta Urteberri zoriontsuak Euskalerriko seme guzientzako



“PRINCIPE DE VIANA”

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA


Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Laugarren urtea - Pamplona - Noviembre-Diciembre, 1969 — Azaroa ta Abendua - Iruña. - 45-46 gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

AINGERU TXURIAK



Berriz ere Gau-onak. Ez da gizonen bihotzean hain barne sarturik dagon beste festarik munduan. Ez naiz egun hoietan gaixo gertatu, ez dut gerran tiroka gau hortako pakerik hautsi; baño gazterik ikasia dut etxetik kanpo ibiltzearen berri.

Etsaia etzegon lo. Ikasten gina-biltzan haurrak, arima gabeko pareta hotzeri josita bota behar izaten genituen Gau-onak, garai hartan. Aingeru beltzez jantzitako eliz gizonak hala hobe zela zioten. Ama guzien bihotzak belarri gorritan senditzen genituen punpaka. Gure asmo bakarra, zer esanik ez, nunbaiteko mendi zokoan galtzen zen soka muturra bezela etxean sartu-ta. Kanpoko lokarriak etzuten indarrak barnean.

Aldatzerik balin ba da munduan, ikas-moldetan dira aldatu gauzak. Haurraren askatasuna da gaur agotan. Haurrari bere bidea egiten behar zaio lagundu; bere asmoak bultzatu, nahi duen guzia egiten utzi. Eskual-herriak ikastolak behar zituen askatasun osoa erakusteko, eta ba ditugu orai ikastolak herritan. Zorionak.

Baño, berriz ere etsaia eztago lo. Askatasun horren aldare harrian Jainkoa eta sinesmena behar ditugu erabat zapaldu ta kendu. «Haurreri etzaie Jainkoz hitzik egin behar», diote ago betean, aingeru txuri antzeko gure andereñoak. «Nor berak sumatu dezala, Jainkorik balin ba da...» Eta denbora berean, haurraren askatasun osoaren aldeko aingeru txuriak beste su batekin diete garbitzen burua.

Aspaldi da adiskide batek esan zidana, eskual giroa dela ta «protxategi» gehiegi zegoela gure artean. Joku zikin asko ikusten da. Eskuara eta Eskual-herria mihiaren puntan, eta gizendu nahia edo beren asmo txikiak bihotzean. Ezagutzen ditut haurrari «gurutze» eta «Aita gurea» erakutsi ez dieten kristauak; bainan, askatasunaren izenean, gerriko kolorez marratuak dituela, garraziz kale-jira politiko batean sei urteko haurra ateratzen. Guraso zintzoen askatasuna... Haurraren aukera bidea.

Baño, gaurko egoeran, gezurrezko jokabidea da gure aingeru txuri hoi-ena. Gurasoak bakarrik dira haurren ezieraren aukeratzale. Ikastoletara

asiak dira gure artean. Aragikeriaren eta lizunkeriaren ikusketa (feria) egin berri da Copenhague-n. Hauxe dira gaurko munduaren aizeak. Jainkoa saltzea asiera besterik ez da. Jainkoaren eriotza nahi luke gaur munduak; eta huste gabe, Euskal-herriko aingeru txuriak bide hortan sartuak dira. Asko beintzat.

Gaizki dago Gau-onetan gurasoeri beren haurrak kentzea. Gaizkiago, berek ez dakitela buruak hustu eta azpi jorra egitea. Gorputzaren lokarriak ezin dute lotu barne gogoan. Gaurko lokarriak barnea dute hitz-tzen, aragiaren askatasuna izan dedin naguse munduan.

Belengo Haurtxoak eman dezaiola gure herriari zuzentasuneko joko-



bialtzen ba dituzte berenak, ustez jokabide jator bat hartuko dutelakoan dituzte bialtzen. Euskaldun, fededun, izan da guraso hoi-ena barne muina; eta era hortan nahi litzukete beren haurrak altxatu.

Etorri da, beraz, aurpegia agertzeko garaia. Haurrak nora bialtzen dituzten jakiteko eskubidea ba dute gurasoak. Ez aldira konturatzen andereñoak, beren asmo berritxu guziak baño zeharrago dela mundua! Ez da gaurkoa gizonak daraman Jainkoaren aurkako borroka. Beti izango dituzte ikasleak. Adieraz bezate beren asmoa, aukerabidearen askatasuna izan dezaten gurasoak. Piperak erostean bezela.

Bakoitzak ereiten duena bilduko du. Eta aizetan ereiten duenak trumoiak eta erauntsiak jasoko. Amodio askatuaren hitzak merke saltzen

bide jatorra. Eta lurtean pake maite dituen gizoneri.

J. M. S.



NEGUA

Beti bezala, gau luzetan sartu gera aurten ere: udazkenak eta neguak au dakarte berekin. Gure lur oketan urtero au gertatzea nai izan du Egileak; ta Arek bakarrik daki zer zaigun on urtearen giroaldi bakoitzan.

Udaberria egunetik egunera luzatzearen edertasuna pozgarri izaten zaigu danoi. Udaren argi luzeak eta argi orrek ekartzen digun epeltasunak ere lasaitzen digu bizitza eta zabaltzen dizkigu bazterrak.

Naiz emen, ikuspegi edo panorama luze-zabalarekin gure begiak asetzekotan, mendian goiti io behar, beko xolan ere pozgarri aunitz arki dezazkegu udaberri ta udan, eguzkiaren indarrak bizitz berri ta pollita lurpetik gora dakarrelako, argi luzeak ilun beltza zokotaratzuz. Udaberri ta udako lana, neketsua bada ere, ezda nekazariantzat aspergarri bihurtzen, zitu aztea ta biltzea baidakar berekin. Nekazaria ez dana berriz, udara urbilduz bezala atsedenezko egon-aldia ere datorkiolako pozak arintzen du, ta udako aisetasunari azken zuku ta muñaraño kentzeko ta bereganatzeko asmotan dabil.

Asmo au amets utsan gelditzea, bertzerik da. Bakoitzak daki bere berri. Matsatik matsara ta sagarratik sagarrara ezberdintasun zerbait ditekenez bezala, batzuen ta bertzen udako atsedenean ere izan leike naski. Ebanjelioak dakarren Epulon ura bezelako guti ta Laxaro erremes orren antzeko aunitz gabiltzalako munduan.

Erremesok ere neguari baño arpegi ariñagoa iartzen diogu, bai udaberriari bai eta udari, otza ta gosea garaitzeko erraztasuna ekartzen digutelako, errixka ta basetxe inguruetakoei batez ere.

Udazkenaren asmenta ere ona zaigu geienean: urrian ta azaroan, badaukagu neguko zer bil: bi ok, badaukate nondik lot; badaukate zer eman.

Udazken akitzera, ordea, uzkurten gera: aritz ta pagoen ostoeekin batean gure aisatasuna ta lasaitasuna ere lurrera doaz; Laxaroenak beintzat...

Argi baño ilunbe geiago iresten dugu berriz neguan; iresten, bai. Ain beltza da negua! ain gizen ilunbea! Ain barren sartzen da otza! Atsartze bakoitzean atsiki egiten diogu neguko otzari; aokada bakoitzta bulkatzeko, ilunbea danga-danga iretsiz.

Ilun ta otz okin batean on aundiak ere ekar dezazke neguak, urtearen zati au geroko on zaigun zerbaiterako baliatzen iakinez geroz. Ohartu behar genuke protxuzko on oketan, atsegin zaigun lan batekin negua arinduz.

Ilun luzearen ixiltasunak ta etxetik kanpo ezin ibili izateak dakarkiguten gau luzearen asmentako zati on bat balio duen zerbaitan erabiltzeko erraztasun ta egokitasuna.

Geren trebetasun ta adimenean nola gabiltzan ikusiz, egokien zaiguna auta zagun, ta negu ilun luzeaz bizitzaren geroa argitzeko balia gaitzen.

Errazena non dagon billatu gabe. Trebetasuna, adimena ta izpirituaren argia, oietaz ongi baliatzeko eman dizkigu Egileak.

Bizitzako on zaigun zerbaiten trebetzen baginezke ta gaur ain ongi datorzen ta biarko ain beharrezko izanen diren iakinbehar batzuk gudanaten bagenitu, ditugun baño maiteago genituzke neguko gau luzearen ixila ta etxeko lantegi txokoan arki dezakegun ontasuna.

IBARRONDO

A propósito de unas declaraciones de Don Vicente García de Diego

El mosaico de las lenguas hispánicas

Don Vicente García de Diego es ya veterano en lides filológicas y lingüísticas. Ilustre académico de la Española y bibliotecario perpetuo de la misma, sabe mucho de estas cosas. En más de una ocasión nos ha tocado pronunciar con reverencia su nombre, como el de un prestigioso científico abierto a las inquietudes legítimas de los pueblos y culturas que integran el mosaico hispánico. Don Vicente ha contado en todo momento con la simpatía de la Academia de la Lengua vasca, que le ha distinguido con su entera confianza, en la línea inequívoca del llorado Don Ramón Menéndez Pidal, a quien tenía el honor de contar entre sus miembros.

Hoy García de Diego es noticia entre nosotros, con motivo de unas declaraciones a la prensa madrileña. No se ve claro a título de qué, «Digame» (30-IX-69) ha querido lidiar, con la cuerda floja, el embolado de las lenguas regionales. Precisamente en la temporada dialéctica del Libro Blanco y de la reforma de la enseñanza, salen al paso estas declaraciones que han creado cierto confusionismo en el sector norteño de sus lectores; y por cierto mucha sorpresa.

NEBULOSA

Toda la entrevista discurre por caminos de intensa bruma. Ya de entrada, a la pregunta, «hablas de España, que puedan considerarse como idiomas o lenguas; y las que son meros dialectos», responde el entrevistado:

—«Es una curiosidad general esta de pretender clasificar las lenguas y dialectos españoles. Los españoles preguntan sobre todo por el catalán, el vasco y el gallego. Para un extranjero, sin embargo, no existe ese problema; consideran a todas estas lenguas como dialectos, un poco al margen de la lengua oficial, que es el castellano».

En principio no vale la respuesta. Como al deportista español que se interesa por conocer las calorías del jamón para su régimen dietético, de poco le sirve que el doctor le insinúe que los semitas se abstendrían de ingerirlo. Pero, en vista de la insistencia del entrevistador, el reportaje viene a decir que «filológicamente, el castellano no es una lengua en sentido absoluto. Es un complejo de dialectos casi soterrados que no se hablan: el andaluz, el leonés, el extremeño».

—Entonces, el catalán, el vasco, el gallego son, no obstante, verdaderas lenguas con entidad propia? —pregunta Manuel Villegas.

Respuesta:

—«Sí, lo son. Pero en ello hay grados. El catalán, por ejemplo, es una lengua indudablemente, puesto que tiene una literatura enorme. El vasco apenas tiene literatura, pero sí gramática; además es como un misterio en la etimología del mundo».

Aparte de la etimología del mundo, que no sé en qué archivos se guarda, tampoco alcanzo a ver si la distinción entre dialecto y lengua debe basarse en la filología —según el último «pero»—, o puede ser simplemente el resultado de la producción literaria de quienes la utilizan. En este caso, lógicamente el castellano tiene más literatura que el catalán y el vasco, y en consecuencia, motivos para que fuera lengua en sentido más propio que aquellas. Nebulosa.

ORIGEN DE LA LENGUA VASCA

Hay un dato positivo en la entrevista, y es la atención preferente que, al menos, en extensión y número de alusiones se presta al tema vasco. Incluso la reincidencia deslavazada del ilustre filólogo, en

su empeño de minimizar hasta la caricatura, la problemática del legado cultural más antiguo del Occidente europeo, a juicio de los más expertos, resulta sintomática.

A la hora de puntualizar su criterio sobre el origen de la lengua vasca, dice:

—«En una contestación categórica no aclararíamos nada. Se sabe que viene, en gran parte, del español. Y por la parte francesa, tiene algo del gascón».

Al preguntarle sobre el gallego, hay de nuevo una alusión, que aclara el punto anterior:

—«Es una historia diferente, dice textualmente. El gallego, al igual que las otras lenguas del norte, es posterior al castellano». Y concluye:

—«No afinando demasiado y por grupos de dialectos, podemos decir que el primero fue el catalán, luego el castellano y sus dialectos y casi al mismo tiempo las lenguas del norte».

Francamente audaz y desconcertante. No me atrevería en estas circunstancias a evocar el recuerdo de grandes figuras internacionales en el campo de la lingüística vasca, por temor a profanar su memoria. Es como si los esquemas hasta ahora válidos en que basaron todos ellos la remota antigüedad de la lengua vasca, se tambalearan. Se trataba acaso de bisoños principiantes de filología? Y sin ir tan lejos, en nuestros propios días, soy testigo del desfile de especialistas de universidades norteamericanas, profesores de LUND (Suecia) y Osaka (Japón), entre otros, atraídos simplemente por el reclamo que supone en el mundo científico el enigma vasco.

Pero el reportaje llega a conclusiones categóricas:

—«Ni el vasco ni el gallego tienen contacto con otras lenguas extranjeras...» «Como todos los misterios, que lo son hasta que se abre algún ventano... En el vasco se ha ido descubriendo la cantidad de palabras que no eran vascas, que eran tomadas —unas muy antiguas— del castellano, del gascón, de todos los dialectos limítrofes. Muchas de estas palabras estaban desfiguradas por la fonética».

En cuanto al acontecer histórico de este fenómeno, habría seguido esta trayectoria:

—«Los corrimientos de pueblos, sin duda, actuaron en el idioma. Parte de lo catalán llegó hasta las Vascongadas por el Pirineo, a través de Huesca, como asimismo lo explica el mismo nombre de las provincias, que no eran de vascos, sino que fueron «vasconizadas» o «vascongadas».

Así se explica, digo yo, que un pueblo inexistente no tuviera nada que aportar, en compensación, a sus generosos proveedores. Y estoy previendo el espolio de las voces vascas incluídas como tales en el Diccionario de la Academia Española.

Siempre me ha llamado la atención la seriedad de los científicos que de fuera nos visitan, en el hecho básico de asimilar primero concienzudamente las interioridades del elemento que tratan de estudiar. En este caso, empiezan por aprender la lengua y dominar sus secretos peculiares, cosa que no siempre se da en nuestra alquimia de alacena casera. Últimamente un profesor norteamericano llegó a decirme que no le servía el conocimiento de la lengua sin las resonancias —en lo posible— que esos términos provocaban en nosotros. Es la meta que se proponen antes de llegar a conclusiones en lingüística comparativa.

En cuanto a la partida de defunción que ya prevé para nuestra len-

gua, ha conocido muchas ediciones desde la visita de las legiones romanas. Nos limitaremos a testificar que, contra todo pronóstico, todavía podemos presentar nuestra fe de vida. Lo que ya no podemos es augurar nuestro destino. Frente a esta incógnita, el mundo reacciona de diferentes modos. El filólogo ruso Alexander Marr llegó a decir que «debiera erigirse una torre de oro para guardar al Pueblo Vasco y su idioma, a fin de que no desapareciera tan preciosa joya».

Y el Prof. Antón Hilkman, de la Universidad de Maguncia se limita a decir: «Nadie en Europa conseguirá provecho alguno si, por ej., los Vascos que todavía hablan la única lengua que queda de la arcaica prehistoria europea, abandonan su idioma, para hablar el castellano o el francés. Si tal cosa sucediera Europa quedaría empobrecida, pues desaparecería una lengua que, como pocas, remontan a la lejana antigüedad y puede dar la clave de grandes secretos; y es en este aspecto no sólo muy interesante para la filología, sino objeto de veneración para todo hombre culto».

SYMPOSIUM

Entre tanto se vislumbran las jornadas del Symposium de lenguas hispánicas que van a tener por escenario a Navarra. La Ulzama abrirá sus brazos a los estudiosos, que de prevalecer la línea de las últimas elucubraciones periodísticas, no cabe duda va a brindar sesiones entretenidas.

JOSE M. SATRUSTEGUI,
de la Academia de la Lengua Vasca.
(«Diario de Navarra»tik artua)

ESKVALERRIKO LEJON



«ORIXE»-ren oroimenez jarritako oroitarria.

NIKOLAS ORMAETXEA «ORIXE» ZENAREN OROIMENEZ

Yoan den Urrillaren 11 eta 12 egunetan «ORIXE» aundia sortu zen Orejako erriak homenaldi biotzkorra euskal letretan ain fama aundiko zen bere semeari egin zion.

Nikolas Ormaetxea 1882 urtean Guipuzkoako Orejako errian jaio zan «Iriarte» izeneko etxean. Denok dakigu bezala bere jaioterriak eman zion haren izengoitiko edo izenordekoa: ORIXE. Baño ORIXE Gipuzkoan sortu bazen ere Naparroko Huitziko errira eraman zuten aza eta eziztera. Gure ORIXE beste bi aurtokoin batera gure mundura etorri zan, eta irukiak geiegi ama batentzat izanik Nikolas aurtxoa eraman zuten Naparroko Huitziko errira. Beraz ORIXE'k bi jaioterri ditu, bata Oreja, eta bestea Huitzi; lehenengoa bigarrenetik urbil, Gipuzkoan hura, Naparroan hau, biek Euskalerrian, biek anai. Tolosako Antonio Maria Labayen euskal idazle jaunak esaten duen bezalaxe: Erri bi hauek, Huitzi eta Oreja'k dute txilbor-lokarria.


Huitziko errian aza eta eza zuten; mutilla egin zanean, argia baitzan estudiatzera joan zan handik urte batzuetara euskal idazleetan onen eta ezagunena izateko.

Horain amar urte baditu Naparroko Diputazioak eta Euskal Akademiak Leitzeko errian horaindik bizi zan Nikolas Ormaetxea jaunari homenaldi aundi bat egin ziotela.

Gero arestin Oreja'ko erriak ORIXE zenari berea egin dio.

Espero dugu horain Huitziko erriak bere txanda artuko duela eta hemendik illabete batzuetara beste ainbeste gorazarre eta oroimena eskeinduko dionik.

Goratu ditzagun, altzatu ditzagun, gure Eskalerriko gizon famatuak, izan ditzagun gure aurrean beren egin-tzak, lanak, irakatsiak. «ORIXE»-ri dagokionez, leitu (irakurri) ditzagun bere euskal liburuak, bere poesiak, honelako moduan yokatuz iakingo dugu zer kategori aundi-ko poeta eta zer maillako idazle izan zan.



ELIZAREN ITZA

BATIKANOKO II BATZAR NAGUSIA

Eliza gaurko munduan

Kristau batentzat, gizonak bere lan eta adimenarekin irixten ditun aurrerapenak ez diote ezertxo ere kentzen Jainkoaren ahal eta jakinduriari, gizadiaren garaipenak Jainko aundiaren azalpen eta Arren izkuten agertze besterik ez dira-ta. Orregatik, zenbat eta aundiago gizonaren indarra, ainbat eta estuago onen erantzukizuna (responsabilidad), kristau batentzat mundu berri bat eraikitzea, ta bere kidekoen onetan alegintzea, Kristoren maitasunak eskatzen dion eginkizun bat da.

Gizonaren aierak, gauz berri eta erosoagoak sortzean, bere burua aberasten du; ikasi, almenak landu, bere kabitik ateratzen da egartzeko. Jarraipen onek, sortu dezazken aberastasunak baño geiago bali du. Duenarengatik baño danarengatik aberatsago da gizona. Berdin esan genezake, gizonak zuzentasun aundiagoa, anaitasun zabala-goa, giza-giro jatorragoa eratzeko egiten dituan aurrerapenak, teknikalako erostasunak baño geiago jaxten dutela. Teknikak bizia aixeltebo tresnab sortu lezazbe baño berak bakarri ez dezazke gizonag gizon bezela aza ta eza, teknikak atomoaren indar ikaragarriak asmatu ta billatuko ditu baño indar oik ez badira neurrian tajutzen kaltetako izan ditezke. Gizon osoaren onerako, gorputz eta espirituarentzako izan bear dute gizonen aurrerapenak, ez gorputzarentzako soilik, espiritua landu ta Jaungoikoarengana zuzentzeko baitik-bat.

Gizonak, alkartasunak, jakintzak beren bideak badituzte, askatun osoakin aurrera abitzeko; okertzen ez badira, religioak ez diote eragozpenik jarriko, Jainkoarekiko mendetasuna ukatuko balukete, ordea, Arrekiko ikuskizun eta artu-emanak, oker jokatuko lirake.

Aundi-ustea eta arrokeria berezkoak ditu gizonak, menderatzen ez baditu puztuko da bere burua Jainko-txiki egin arte eta besteren ona billatu bearrean, beste guztik berari begira jarri naiko ditu; Kristoren apaltasunean gurutze ta piztueran opatuko du bakarrik bere griña makurak zuzentzeko bidea, bere burua ukatuz eta besteren serbitzuan saiatuz.

EUSKERA IKASTEKO CORSO BAT RADIOAZ IRUÑAN

Naparroko Diputazioaren «Euskeraren Aldeko Saila»-k Euskeraz ikasteko curso bat Iruñeko «Radio Popular» Emisoratik ematen du.

Kurso hau egunero, (igandetan ez besterik) bi aldiz ematen da; Goizeko zortzi terditan eta gabeko amaika laurden gutxienetan, goizeko leziua (Ikasgaia) berriro gabeen emanik erreztasun geiago entzulei emategatik.

Euskera obekiago ikasteko METODO DE EUSKERA RADIOFONICO izeneko liburua erosi behar da. Salgai dago Iruñeko eta Donostiko liburu dendetan guztietan. Euskal Ikasbide hau Juan Oratibia jaunak egindakoa da.

Euskal kursu hau yoan berri den Urrillaren seigarren egunean asi zan, eta yende aunitz egunoro dela goizetan, dela gabetan, dela bi aldietan, gogoz entzuten du.

«TORIBIO ALZAGA» IZENENKO TEATRO SARIA (ANTZERKI SARIA) AGUSTIN ZUBILARAI JAUNAK IRABAZIA

Euskal Teatro Sari hau Bizkaiko «Caja de Ahorros» delakoak ematen duen diruz Euskal Akademiak (Euskaltzaindiak) antolatzen du bi urtean behin. Bere izen osoa «Toribio Alzaga» Antzerki Saria da Donostiko seme eta Teatro egille famatu zenaren homenez.

Aurtengo Saria Ondarruko Agusti Zubilarai jaunak irabazi du.

Mai burukoak Larzabal, Arkotxa, Berrondo eta Beobide jaunak izan ziran.

Gure goresmenak Agustin Zubilarai euskal izkribitzaile on eta maiteari.


Euskal Akademiak esaten digu aurtun, Euskaltzaindiaren urte-ezteiak dirala-ta, Bigarren Sariketa berezi bat izanen dela. Sari hau gaztetxoan maillako teatruentzat (Antzerkientzat) izango da, amalau urtetik 16 urterakoentzat antolatua, eratu, eta gizonak (nagusiak) errepresentatzeko moduan eginak. Lanak bialtzeko nahi dutenek, lehenbait lehen bialdu ditzatela (igorri), Euskaltzaindira (Ribera-6-Bilbao).

«AITA GURE» EKUMENIKOA

«Zeruko Argia» izeneko euskal astekarian, Manuel Lekuona apez jaunak «Aita Gure», billera aunitz izanak eta elkar esanak, iritziak, aburuak eta iduripenak entzun ondoren honelako moduan gelditu dala esaten du:

«Gure aita, zeruetan zerana: santu izan bedi zure izena; etor bedi zure erreinua; egin bedi zure naia, zerruan bezela lurtean ere. Emaiguzu gaur egun ontako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere gure zordunai barkatzen diegun ezker; eta ez gu tentaldira eraman: baiñan atera gaitzazu Gaitzetik».

IKUSLE



EGUBEÑIARI

Urtaik ditun jai aundi ta pozgarrienak, Eguerri, Urte-Berri eta Iru Erregenak dira. Batez ere badu Eguerri egun onek bezperatik asi ta, alako sakontasun eta goxotasun berezi bat, sinismenik gabeko kristau asko ere kutsutzen dituna.

Ospatu ditzagun, ba, guk ere, gure biotzetan izan lezakegun on guztiarekin, lagun urkuaren alde zabaltzen ditugula.

— 1 —

Laxter Eguerri eguna agitz maitatuak. Pasa dira lau aste Abendukuak. Prestaerako ziran oso sagraduak. Biar dute izan beti fedez argituak; txit estimatuak; maitez gorituak; tinko sendotuak; iñola ez loituak. Jan edanetan berriz legez neurtuak.

— 2 —

Ala dio San Pablo'k deituz gogotikan: «Ordu da ernatzeko lo zorrotikan» Osasunezko egunak dauzkagu ia bertan. Unea bertan dago, ta jo du atietan. Gure belarritan izan da soñuetan ordu egokietan Abendu astietan. Laxter degu zoriona gure errietan.

— 3 —

Millaka urte luzeetan Zure zai gu beti. Arrats beltz illun batek egiñ digu argi.

Artzai ta Iru Erregek an begira Zuri. José garbi donea Birgiña Maria'ri, antxen iruro'ri jarririk ageri arimen egarri Aurtxo Ber-bera'ri. Argi ura danentzat beti izan bedi.

— 4 —

Jo danboreta txixtua Arrats alai ontan, kriskitiñak orobat kale auzuetan. Izan bitez alai kantak balladetan. Alleluia ta Hossana mendi, baserrietan; sua biotzetan Arrats pozgarri ontan urte ta urteetan; eternidadetan. Arrats zoragarria, irauñ luzetan...

— 5 —

Zein baño zeiniek Arrats maitagarri ontan izango dute aukera beren maietan. Sukalde epel-epelian, danok antxen bertan. Ez dago iñor okildu ixill ta erdi lotan. Badago jakitan; ez da falta txanpañ.

Etxeko andre apañ; gazte gende liraiñ. Ez ta an gaur faltako turroi ta ez gaztaiñ.

— 6 —

Azkeneko oarra dizuetet danori. Zabaldu zuen eskua biartsu, txiruari. Eman bide zuzena borondatiari. Eman zuen biotza gogoz bakoitzari, naiz adixkidiari ta naiz etsaiari, gure anaia emengo ta anguari. Agertu ongi naia txuri, beltzari.

— 7 —

Ertortzen zeranian aunditasunian gure zorrotz Epaille denen aurrian, ez gaitzatu Zuk utzi erortzen lotsian. Ez utzi gu galduta bazter illunian ez ta negarrian betiko oñazian galera bidian betiko irauñdian. Artu gaitzatu orduan zorianian.

JOAQUIN ALDAVE

JESUS AURTZOAREN ZATI

— 1 —

Aunditzak nork ar dezake goroldi apala? Noren begiarentzat on "aritzen" axala? berin (kristal), zerra-zagi, abar txotx, ezpala, parer puxka, filda urdin, mai xar ta makala?

— 2 —

"Belentxo" baten zatiak ibil gaur buruan: ola negur dezakegu zer garen munduan: ienden ustean daudenak ezeren lekuan. negur gabe aundi dira ziurki zeruan.

— 3 —

Mai xar baten zelaiean antola naiean "Belentxo" dabil aur bat "Gabon" bezperean: tokirik egokiena arki duenean, zitu-tituan asten da "Estalpe" lanean.

— 4 —

Ezpal aundiaz, an-emen maiaren gañean, sortuko ditu mendiak zelaien tartean: ezpal ttipiekin berriz, ezarri an bean. asma ditu zubitxoak erreka batean.

— 5 —

Urik gabeko erreka zertako zubikin? Urez ongi beteko du, bai, berin zatikin: ziliar paper dirdiratsu puskatxo batzukin putzu zabal ta ederra arrai ta pirukin.

— 6 —

Prestaturik antxe dauzka goroldi multxuak: xabal-xabal edatuaz zatixka batzuek, ederturik uzten ditu

mendien kaskuak, an-emenka berezirik basautzen lekuak.

— 7 —

Abartxoekin sortu du oiantxo ederra: abar luze-luzenean iarri du "Izerra": oian artean, txoriak, uso ta eperra: beko lezetxoan berriz... "infernu-akerra".

— 8 —

Fildatxo urdin batekin zerua asmatu: Aingeru ttipi pollit bat antxen du kokatu: artzañak ere bezate "Gloria" kantatu: iauregian Erodes da ikaraz landatu.

— 9 —


Zerra-zagiakin ditu bideak antola: "Aritz" axalekin sortu Iesusen txabola: Iaunko-Aurtxo seaskan agiri dagola, aurtxoak prestatu digu Kristoren Eskola.

— 10 —

Aundiusten begirako uts eta ezetzak "Eguberriz" bete ditu auraren ametsak: argia dakar noizean ain beltz dan iketzak: oñari apalak nonbat Zeru-Erregetzak.


— 11 —

Ez arritu, adiskide, "goroldi" bazera: munduak bota bazaitu ezpalen antzera: iduri izanik ere abar txotx, papera, JESUS AURTZOAREKIN-BAT, AREN "ZATI" ZERA. IBARRONDO



Eguberritako kantak

Orain Eguerri kanta batzuek jarriko ditugu, bakoitzak zeuen etxetan edo arkitzen zeraten lekuetan kantatu itzazuten Jesus Aurtxoari.



— 1 —

Artzai buru xuri bi, Anton eta Peru, Belengo portalara etorri zaizkigu; sartu dira barrura Manueltxorengana, presente egiñ diote arkumentxo bana. (bis).

— 2 —

Aingeruak esan du or mendi gañean, Jesus jaio zaigula Belengo estalpean; Gloria zeruan da ta pakea lurrean borondate oneko gizonen artean. (bis).

— 3 —

Belengo portaleko ostalpe batean, jaio da Jesus umil, ganadu tartean: asto eta idia dauzka aldamenian, arnasez berotzeko oztutzen danean. (bis).

— 4 —

Txit egun ditxosua degu Eguberri, zergatikan da Jesus gugana etorri, guztiok bear degu

debozioz jarri, eskerrak emateko jaio dan Aurrari. (bis).

— 5 —

Ogeita laugarrena degu Abenduan, deseio ginduen erditsi ginduan: gabeko amabiak jo zuten orduak, gure Salbatzalea jaio da munduan. (bis).

— 6 —

Espiritu Santuaren obraz sortu zana, Trinitate Santuko Bigarren Persona; Amari galdu gabe dontzellatasuna, jaio zaigu Belenen gure Jesus ona. (bis).

— 7 —

Zorionean Jesus Zu jaio ziñaden, bestela zeruetan sartzen ez giñaden; gu salbatzeko gizon egin zera emen, Glorian gozatzeko elkarrekin. Amen. (bis).

★

Atozte kristauak, Biotzak pozturik; Atozte guztiak Belenera, Jaio dan gure Jesus ikustera: «Jauna gurtu dezagun», Auspezturik.

(«Adeste fideles» bezala)

Saldisko «Artzai Deia» euskal al-dizkaritik ekarria.



GOAZEN ARTZAIK

Goazen artzaiak segi dezagun, laixter Belenera, Jesus adoratzera al dan laixterrena. (bis).



GAU OTZ GARBI

Gau otz garbi-izar argi; zerutik da etorri Jainkoaren Seme-jaio berri, aingeru danen poz-iturri, gogo oneko gizonen pakea die ekarri. ("Noche de paz" bezala)

D. JAVIER IL ZAIGU



Badira egunak atzentzen ez diranak. Aranaz'ko erriak beintzat Dagonillaren zortzia ez du berelaxe atzenduko.

Laño zegoen arratsalde apalean. Egunaz bero izugarria egiña zun. Illuntze-illuntzean, laño tartetik oiubat errikoeri: etorri gizonak, D. Javier illa bide-bidean arrapatu dugu-ta. Gizonak, emazteak, aurrak, arri guzia arrikaratua, entzun eta ezin siñestu entzuten zutena. Arratseko amaikak eta bere etxera gure apezaren gorputza, oztua, zortzi ordu illik mendian.

Gau ura zitzaigun illunagoa, ordu aiek luzeagoak, pena miñagoa, utsa ezin betekoa, laguna ezin billatua. Biaramonean, argiarekin batean, berri txarra ere edatu zan errian, Bortz Errietan, Nabarran eta Gipuzkoan: D. Javier, Aranazko apezza, 33 urtetan il omen da.

Azki'ko pinadiaren bazterrean itzali zan aren bizia, eta ondoan sortu gure errian utsa. Elizan utsa: aldarean, konfesonariuan, koruan; aren solask ixilduz, aren konsejuak bukatu, aren doñuak goan dira betiko.

Aranazko eskolak bear zuten zuzendaria ta aurretik asi ta maestruetaraño ura zan aurrekin aur ta maestruen bertze erakusle bat. Aranaz'ko gazteak bear zuten gizon bat konfiantzakoa, eta gazteen kezak ziran aren kezak. Lamtegiak zeuden aurrerapen bearretan eta etzen alketzen eken lanak, eken nagusiak obetu ta argiratzera. Baitaere jostetako orduan nai zuan beti an zerbait egin: Bidasoako pillotariak ongi ezagutzen zuten billetetan ta plazetan.

Maitasuna zuen lege, errexak moduak, lanean beñere aspertzen ez, nekatua bañan beti alai. Olako gizonak nola ez utsik utzi?

Aitz eskualduna zan. Aita zuan Etxalartarra eta ama Lekauztarra. Etxalarren jaio zan, an bizi, Arburuan. Iruñan apaizgoa egin zun eta amar urtez Aranaz'en Apez, beti eskualdun erriari inguruz. Eskualdun erriaren aberastasunak maite zituan, zeruko doai batzuek bezala. Lots aundia artzen zuan eskualdun bat bere oitura ta izatez alketzen zalarik edo ignorantziz eskualdun aurka mintzatzen zalarik. Prinzipe de Viana'ko lerroetan dauka bere tokia.

Bai eskualdun artean ere utsa utzi duzula. Eskualdun errian apez-gai gutxi, apez eskualdunak beren txokotik urrutit: Iruñen, Donostian. Egun batez apez eskualdun gabe geldituko ote gera bada, Javier? Kezka auxe bazenaukazu? Ameriketara, artzai eskualdunetara bazijoazin urte batzuetako, gero berriz emen lan egiteko, geiago ikusi ta ikasi, gero zure erriari erakusteko. Olako apez aunitz ote da? Apez ona zalako, eskualdun jatorra zan, bañan eskualdun ona zalako ez ote da egia apez osoa zala?

Zu, Xabier, goan zera betiko, bañan zure lana ez. Maite zenduan piztuerez mintzatzea, zuretako eriotza aleluiazko eguna zan, bai zenekian eriotza ez dala baizik biziz aldatzea. Zure eriotzak Elizan, Aranaz'en ta Eskualdun Errian, lore berriak sortuko ditu nunai. Egiaren, zuzentasunaren, libertadiaren eta maitasunaren fruituak onduko dira zuk landatutako areboletan.

Apaitzu ziñan denak zeruratzeko; zure jakintasun, solas ta lanak daneri zerua maitatzeko zuzentzen zintuan. ¡Zenbatak zor diatzute zerua! Zuretako bedi zerua, zure saritzat bedi eta andik zuk gu arat zuzendu gaitzatu.

Zerua saritzat	Zerua saritzat	Zerua saritzat	Zerua saritzat
Pozez bete kristauk	Alai zaite gaztea	Ea o aite amak	Ai! guro zoriona
Emengo negarrentzat	Izan egizu beti	Egin zuen umientzat	Daukagu guretzat
Dauka Jaingoikoak.	Maite onbidea.	Otoitz garsuenak.	Betiko atsegliña.

Zerua ... saritzat ... zerua ... saritzat.

IKASI, MIKASI...

¡MINBIZIAREN SENDAKAI BIKAÑENA...!

—«EZ IÑOR IL, EZ IÑOI GAITZIK EGIN» — dio Jaungoikoak.
—«ASI GAITEZEN GEREN BURUATIK» — diozut nik.
—¿Beorren ustez, ardoa geixei eaten duunak bakarrik egiten dugu Bostgarren Mandamentuan kontra?

—Ez, ez; beren burua, edo osasuna, galtzeko arriskuan jartzen duten guztiak.

—Aipatu bitza ejemplo batzuk.

—Arboletan, tellatuetan, aldamiotan, bizikletakin, motoakin, autoakin, eskopetakin eta, nolana dabiltenak. Gañera, bein baño geiagotan, ez bakarrik beren burua, baita bestien bizia jartzen dute galtzeko arriskuan.

—Ustegabeen erortzen denak, ez du pekatuik eñien... ¡Naiko izango du zanpatakoakin!

—Esan dizut, NOLANAI dabiltenak, ez KONTUZ dabiltenak. Ez didazu ukatuko, beren burua —ta bestiena— galtzen dutenak, maiz biñepin, burugabeok bezala dabilzelako dela. Noizin bein, kontuz ibillita ere, erori diteke arboletik edo tellatutik; noizin bein, lertu diteke autuan gurpille edo ardatza autsi, baño, geinetan, olakoak gertatzen dira, motoa edo autoa deramanak geiegi edanda dogalako, edo bear ez den lekuan bestia aurrera arapatu naien asten delako.

—¿Zer da Bostgarren Mandamentuak, batez ere, debekutzen duena?

—Batez ere, debekutzen du lagun urkoan gorrotoa. Begira Jesukristok zer diagan:

«Aditu dezute esan au: «Lagun urkoa maita zazu, eta etsaia gorrota zazu». Nik, berriaz, au diozuet: Maita itzazute etsaia eta otoitz egizute gorroto zaitutenean alde. ¿Senideai bakarrik diosala egiten badiozute, zer egin dezute gañez? ¿Ez al dute siñisgabeak ere oinbeste egiten?» (Mat. 5, 43-47).

—Oaiñ aithu nai nuke, beorrek dakizkin ejemplo oitakon bat.

—Ara, emen, KENPIS izena duen liburuan irakurri nuen gertaketa bat. Ba omen zen gizon bat, sagaran osti santua ikusi etzezakena. «Ez dakit —zior— zer gertatzen zaidan. Meza ematen ari denen eskuak ikusten ditut, baño osti santua, ez». Bein, konfesatza joanda, apez jaunari au esan zio-larik, onek, galde batzuk eginda, igarri zuen beste gizon baten gorroto aundia zuelako zela. «Joan zaite beragana —esan zion—, eta egin itzazute pakeak; konfesatu zaite damutasun bizia eta ikusiko duzu osti santua...».

¡Ola egin omen zuen, ta ala gertatu zitzaion!

Egi da, bada, Jesukristok diaguna:

«Beraz, Aldare ondora zure oparia eskeintzera bazoaz, eta anaiak zure aurka zerbait dula an gogora bazaizu, utzazu oparia aldare aurreran, eta oaz leenik anaiarekin pakeak egitera ta ordun, itzulita, eskeñi zazu zure oparia» (Mat. 5, 23-24).

—Eron bat ez bada, ¿beorrek uste du, gure errietan biñepin, gizon bat ere izango denik laun projimoai apropos kalte eingo dionik?

—Euskal-errian, munduko beste errietan bezala, belar txarra sortzen da, au da, bekaizkeria ta zikoizkeria indartsu azitzen dire...
—Baño, ¿laun projimoai kalte egiterako?

—Bai, gizona, bai. Geienin, asmo txarreakin, ez, baizik burugabekeriz. Noiznai, irakurri dezakezu gure izparringietan:

• "N."ko errian, gizon bat txutitu zelarik zerbait esatearren, lagun berritsu batek kendu zion bere alxia, ta eseri nai, atzera erorita, kaskezurre autsi zitzaion".

• "N."ko errian, mutil batek, eskopeta utsik zegoala ustez, zuzendu zion bere lagunari, ta ¡pun! ilda utzi zuan".

• "N."ko errian, mutikoak jostaketan ari zirela "indioketara", batek fletxa zorrotzarekin jota, begia ustu dio bere lagunari".

• "N."ko errian, emakume gaixo batek, platano axalean irristatuta, eskuñeko besoa autsi du".

• "N."ko errian, mutil batzuek, arri aundi bat amilka botata, bere autoan zijoan gizona il dute".

Olako gertaketak, egunero dituzu periodikotan.

—Arrazoe du beorrek. Biñepin, eskopeta elitzeke zuzendu bear iñoi, jez da txantxetan ere! Baño, ¿asmo txarreakin ee kalte eiten dutenak, baaldee?

—Len esan dizut, beste lekuetan bezala, emen ere belar txarra sortzen dela. Zuk «apropos» diozuna, au da, asmo txarreakin, gutxitan izango da, baño ¡bein edo bein, bai! ¡Euskal-errian ere, diruak biotza gogortzen du...!

—¿Kason bat, kontu balezake?

—Batekin, naiko duzu, non ikusten den biotz beltza dutenak ere badirela gure artean.

—Beorrek asmatua ez da izango?

—Ez, ez. Neri esan zidaten bezala, esango dizut. Urte mordoxka bada gertatu zela. Ala ere, ez dizut esango non izandu zen (pekatua esan diteke, pekatariaren izena, ez...).

—Esan beza ia, ze paastu zen.

—Nere adiskide bat, paseonan zebilela erri artako jauntxo batekin, eldu zen kamion bat, non zeramaten bei bat, aule baño aulago, ezin txutik egonez. Bi gizon jexi ziren kamionetik, eta:

—«Mesedez, don N.».

Nere adiskidea alden du zen piske bat, mintzo zezaten bear zutena. Etxean aitzen zer zioten bere lagunari, baño ikusten zuen etzietela eman nai eskatzen ziotena. Erakutsi zioten ogei duroko bat, eta ¡jetetze! egiten zien buruakin. Bi ogei duroko, ta ¡jetetze! Baño, eun duroko bat eskiñi ziotenian, atera zuen sakelatik «blok» eta «boligrafo» bat, eta paper bat emanda, bidali zituan —eta pozik— gizon aiek. Gero, nere adiskidiarengana urbilduta, esan zion:

«Lotsagabeko oik! Eskatu didate bei ustel bat iltzeko baimena. Baietz esan diotet, zergatik Sanatorio baterako —non denak, minberaz ta minbiziaz (tuberculosis y cáncer) jota daudendako da beye. ¡An dauden gaixoak, egun batzuk audioago edo lenago il...!».

—¡Erremedio bikañe eman zien minbizia sendatzeko...!

—¿Ikusten duzu, nola Euskal-errian ere, ez dela beti kontun idukitzen Jesukristok diaguna: ZURETZAT NAI EZ DUZUNA, EZ EGIN BESTIAI?

A. ASTIZ ARREGI

ERREBOTEKO YOKUA



Erreboteko yokuan Euskalerriko Txapeldunak Billabonatarak gertatu ziren. Belaunikoak: Bidaurre ta Beristain. Zutikoak: Santamaria. Etxenike ta Arrillaga.



SUNBILLA

Ezkontza. Buruilla'ren amairugarenean ta arratsaldeko bostetan, ezkondu ziran, Paula Mari Sanzberro neska gazte apaña, sunbildarra, Iñaki Aizkorbe, mutil jator Iturendarrakin.

Andregaiaren anai ta apaiz den don Tiburtziok, Leitzako lan-toki ikastolan edo «eskuela laborelean» dagonak bedeinkatu zuen ezkontza. Itzaldia egin ziena ezkoberrieri, bertako bikario yaun don Baxilio Sarobe izan zan. Ezti ta xamurkiro mintzatu zitzaion. Elizako organoari ekin zion Paula Mari'ren anai Joxe Ramon'ek, eliz-kanta politak jo ta abestuz.

Ituren'go txixtulari sonatuak (Iñaki bera ere txixtulari bikaña dugu) Demetrio Aizkorbe, ezkongaiaren anai ta Mikel Makuso bikote gazteak ekinaldi ederrak egin zituzten. Elizan, elizatik kanpo ta maiko otorduan etzan txixtu ta alaitasun faltik izan.

Egun onak! Zorionak ta jarrai bizimodu berriari!

Bai-ta ere Sunbillan ta Urrilla'ren laugarrenean, elkartu ziran ezkontzako sakramenduaren bidez, Mari-xol Zelaia Lestiri, sunbildarra, Manuel Mariezkurrena Telletxea, Labaien'en jaioa ta Urrotz'en bizi zena. Beren bizi-toki berria Irun'en izango da. Zorionak!

ZILLARREZKO EZTIAIK

Buruilla'ren ogei ta bederatzian, au da, San Migel egunez, zelebratu zituen bere ezkondu zaneko ogei ta bost urteak, «zillarrezko eztaiak». Sunbilla'ko alkate yaunak. Familiar guztiak bildurik frantzes mojatxoan eteko elizatxoan, goizeko zazpiterdian izan zuten erderazko meza-elizkizun bat. Gero, «Irubideta» ostatuan egin zuten otordu eder bat. Aunitz urtez!

ERIoTZA

Ama Birjiña Pillareko egunean, urrilla'ren amabian, il zan Sunbillan ainhertze urtez sekretario izan zan Frantzisko Bazterrika. Ain zuzen, egun arretan betetzen zituen ogei ta amasei urte ezkondu zala.

Urrengo egunean egin ziran bere arimaren aldeko meza ta elizkizunak. Izugarrizko yendeketak bildu ziran elizan. Don Baxilio apez agurgarriak ongi egiten dakien bezala, eman zan euskerazko elkar-meza edo konzelebratua. Iñun egiten bada euskerazko funtzio ederrik, sunbilla'ko errian egiten da; alde batetik, Sunbilla'ko erria euskaldun utsa delako ta bertze aldetik bertako yendeak ala nai-ta.

Frantzisko Bazterrika, agitz gizon maitea zuten Sunbillan. Azkeneko urte sailtzo auetan, oso gaxo, eri

Zazpigarren bertsolarien eguna Markina'n

¡¡ NAGUSIENAK... "PIPER EGIN" !!



Urte guziz bezela Markina'n bertsolarien eguna ospatu da: zazpigarrena asie zkerotzik.

Iruigarren urtea da bilkura oietera agertzen gerala eta... pena aundi batekin aitorzen degu, egun orrek ez duala bear luken arrakasta bertsolarien artean, batez ere bertsolari NAGUSI direnen artean.

1965'an Basarrik «Zeruko Argia'n» idatzi zuan:

«...Pilareko eguna, egun señalagarria izango dek aurrerantzean bertsolarientzat. Urteko billera onek gero eta indar aundiagoa artuko dik».

Ala bear zuan, baño zoritxarrez, ez da orrela gertatzen. Atzeraka guaz, gero eta aulago...!!

Begira aurten Markina'ra azaldu ez diranak:

Ipar-Euskalerritik... iñor ez, Naparruatik... iñor ez.

Xalbador en omenaldian Donostian bildu ziran bertsolarietatik, BAKARRIK GORROTXATEGI.

Bestiak-beste, ona Markina'ra etorri etziran bertsolarien izenak:

Basarri bera, Uztapide, Lasarte, Lazkao-Txiki, Mitxelena, Lizaso, Aguirre, Garmendia, Lazkano, Mu-

arkitzen zan. Ala-ta guztiz ere, bere familioen artean ezin betetako utsunea utzi du. Bere emazte-alargun ta seme-alabari gure dolu-miñik bizienak. Goian bego.

Azkeneko egun auetan jakin dugu Venezuelan il dela Sunbilla'ko seme zan Frantzisko Galtzagorri Jorajuria. Laixter etortzeko omen zan bere sorterrira. Goian bego. Aideoari lagun egiten diegu beren naigabeen.

G. U. Y.

niategui, Mugartegui, Aspillaga, Lopategui...

Penagarria zan orrelako utsune izugarri ori ikustea!

¡¡Bertsolari NAGUSIENAK...» piper egin!!

Agertu etziran bertsolari oiek jakin dezatela, Markina'n bildu ziran bertsolari apal-umillak, goxo etziran zonbeit bertso, abestu zituztela euren ohoretan...

Penagarri izango litzake, benetan, egun orrek Basarrik esaten zuan bezela, «gero eta indar aundiagoa», ez izatea.

Bertsolarien artean, idea aunitz aztertu ziran, egun orri ahal den eta bear luken AINTZA ETA OSPE emateko: edo lekuz aldatu... edo beste era batera eratu... edo agertu ez diran bertsolarieiri euren iritzia eskatu egun ori gertatzeko...

Pena eta kezka, bi sendimendu oiek agertzen ziran Markina'n bildu ziran ogeita amar bertsolari apal-millen artean, eta denak, ao batez, ados ziran, egunak bear zuala jarraitu.

Izan ere beste langintza guztietako gizon-emazte bakoitzak, euren urteko eguna, osperik aundienian igarotzen saiatzen dira: ¡¡Kale garballe berak...!!

Eta bertsolariak beste ainherte egiteko ez dira izango... gai?

Dena den, gauz bat da ziur: Bertsolari NAGUSIAK «piper» egiten badute... ez du egun orrek luzaroan iraundu.

Eta uste osua degu bertsolari oiek ERRESPONSABILIDADE ortaz jabetuko dirala.

Azkenian, eta aunitz mintzatu ondoren, komisione bat izendatu zan eldu den urteko eguna eratzeke. Geroak esango... zer gerta.

H.

ERRIZ - ERRI



DONEZTEBE

Doneztebe aldetik berri alaitu batzuk ba-ditugu: Ikastolak jarri bear dituztelakoan, alegia. Lerro auek argia ikusi orduko uste dugu ikasketak beren bidean «zutik» ikasten asiak izango dirala.

Bañan... nik, egia esan, nere iritzia emateko, ba-daukat alakoxeko bildur bat: nexka-muttiko GUTXI azalduko diralakoena. Gogo faltik ez dago euskeraz erakusteko. Kondizio txiki bat eska genezaiokoe aurren guratsoeri: aintzat artu dezatela ta alegiñak egin umeeri euskerazko erakusketa oietara biartzeko. Ez dituzela gelditu bai-bai«ean»ta gero ezer ez.

Doneztebe'ko erriak ori dena zor dio euskerari: ERAKUSTEA. IKASTE. EUSTEA. Bere eruz galdutakoa, orain illunpean arkitzea. Ta, zorionez arkitzen badu, altxa dezala ta bere lekuan jarri.

Bertako agintariak, Honorio Taberna Bera (Alkatea) lenengo dala interesatuak dauzkagu lan ori aurrera eramateko. Ez da gutxi alajaña, oztopoak arkitzetik erretzasunak eukitzea! Lotsagarri da benetan Doneztebek bere izkuntza, euskera, galdua izatea. Diot, lotsagarri, zergatik, ogei ta amabost urtetik beerakoak, zenbat dira euskeraz poliki mintzatzan dakitenak? Lau? Bost? Zazpi? Zer da ori milla biztanle (bizilagun) dituen euskal-izeneko erri batentzat?

Doneztebe! Nun dezu galdu dezun pitxia, EUSKERA?

GORTARI TA UGARTE'AR YON



ARBIZU

Gauz arrigarria da esan behar dizuedan hau: herri honen izena aldizkari honetan arkitu nahiean ibilli izan naiz ta alperrik ibilli ere. Azkar konturatu nintzan etzegoala idazlerik gure herrian. Ez da bada, herri honetan euskeraz egiten ez dalako, edo ta euskerik maite ez dalako. Izan ere herri honetan izkuntz bat dago nagusi. Ta zorionez, izkuntz hau Euskera dala, diozute.

Emengo arazoak jartzen nau idazlari. Alde batetik poza dario, lehen ere esan dizuedanagatik, euskeraz gudan buru artu dualako. Baña samindurik nago ain errez eta ene ustez ongi egiten dan euskera honek gorputzik artu ez dualako. Baña ez naiz ni samintasan utsean gelditzen. Izan ere, olan ez dugu euskerarik piztuko. Ene ustez samintasan berean geiago begiratu behar diogu alde onari txarrari baño. Alde ona zedin? — Samintasan hori aienatzen saiatzea baño indar haundiago batekin. Hau da kondizio hoietan dagoan euskera horri laguntzen saia-

tuaz. Beste erreazioa samiñean itoztea litzake.

Orregatik bada, gaur idazten ditudan lerro hauek jarraipen bat euki dezatela eskatu nahi nuke, eskaera hau ditekera bada beintzat. Ziur nago ala izanen dala.

Lehenengoz, herri honen berri eman nahi nizuke. Lehen esan dudanez, oraindik euskera nagusi dugu, baña bildur naiz azkar erdera eukiko ote dugun.

Barranka guztian, aspaldi honetan, aldaketa bat egondu da: gazteago giñalarik inguruko herri hauean ere euskera zan nagusi. Baña gaur?

Lehenengo samintasan hau aita-tzeagatik besterik ez bada ere, biotza samindurik daukadala, diozute, herri hauen egoera ikusi ondoren. Barranka guztitik bi herrik daukate euskera nagusizat: Urdiain ta Arbizu.

Zergatik bada hau? Nik, beste arrazoï batzuen artean, hauetxek aitakoko niutzake:

a) **Beste herrietako industrializazioa.** — Ba dakigu lantegiak kanpotar gende asko dakarkila. Ta emengo herri txiki hauean formazio haundirik ez egotian, euskeraren beharrik ez dute ikusi. Ta pragmatista antzera jokatu dute: euskerak ez die probetxurik ematen. Ta gero, erdal-duna ez da bereala gure oituretara egiten.

Egia esan beharrea arkitzen naiz hontan: Lakuntzako atzerapena, hau da Lakuntzak aspaldi hontan eman dituan urratsekin ez goaz inora ere.

Kanpotar geiena herri honek artuko zuan behar bada, baña Arbizu-n ere ba dago kanpotarra, ta sarritan euskeraz ikasten du.

Errezena hori da, kanpotarren izkuntzean aritzea. Baña ez euskaldunarentzat, euskera maite dunarentzat. Euskaldunen errua, jakiñean edo ezjakiñean, besteen oituretara egitea izandu da. Ortara behartuta egotia, gongodu geran bezala, asko esan nahi du, baña ez dana. Bat beharturik arkitzen danean orduan dakus askatasunaren garrantzia. Baña gure artean askok ez dute erreazio hau eduki.

b) **Apaiaren ekintza herri hauean.**—Ezer idatzi baño lehenago, aitatu dezadan Arbizu-ko apaiz «Don Juan».Lerro hauen bitartez ikusi dezala berak herri baten omenaldia, euskera ainbeste maite izan dualako ta herrian nagusizat eduki dualako.

Herri hauetako apaizak «emigrante» hauen apaizak izandu nahi dute. Ez dakit iritxi diran ortaraño. Eleiza danentzako dala ta ez duala izkuntzik ta naziorik beretzat artzen. Egia da baña eliz hau gizon danetara iritxi behar du baño **gizadi txiki**en bitartez. Kristo ere etzan mundu guztian ibilli, judioen artean baizik.

Lehenago Euskalerria ain erligioso izanik zer gertatu zaio aspaldi hontan?

Apaizak bertako gendiakin ahaztu dira. Ta apaizak kasorik ez egitian, herriak ere, eurengan jarririk zeukan uste ona guztiz galdu du.

Ba dira gaur zenbait gende, Arbizu bertan, euskerari garrantzirik ematen ez diotenak. Ta euskera denporakin aienatu edo desaparezituko dala uste dutenak. Ta orrela oldozten edo pentsatzen duanak ez dio euskerari aurrerapen aundirik ekarriko.

Bildur geiena bertako gendiari diot. Kanpotarra, esan dizuedanez, orainarte integratu izan da, baña herriarrak erderaz asten ba dira ez dute alegin haundirik eginen euskeraz.

Lerro hauen bitartez ohar bat azaldu nahi nuke erderaren alde lan egiten ahari diran aientzat. Edonun ikasten ahari zeratenok garrantzi geiago eman dezaiozute euskerari.

Batzuek diotenez ikastolaren beharrik ez dago, baña kontu! Herri honetan, naiz ta euskeraz egin, ikastolak garrantzi geiago emango lioke.

Beste alde batetik ere jo ditek. «Klub» bat egiteko asmotan gera ta une ederra «klub» honetan euskera sartzeko. Gendiari euskeraz idazten ta irakurtzen ta bertako oiturak maitatzen erakusteko.

Batez ere gaztediari gauz bat opai diot: **Animatu dedilla bide hau arzen.**

FELIX



Nafarroa'ko aur euskaldunen yostetak

ARRIAN

Nexka edo mutikoen joko ontaroko, 9 arri-lausakoko illera bat beretzen da, edo lurreen markatutako rektangulo luze batean 9 kuadro txiki egiten aren luzeera guztian; airean, arri xapal bat botatzen da, leenengo arri-losara, txingilka, au da, oin batean gaiñean ibiliaz, eta kuadro-etako marrak ikutu gabe, ekarri bear da oiñakin arria; au ez da kuadroetatik atera bear, ezeta gelditu ere marra baten gaiñean.


Gero, -2- garren kuadroa botatzen da arria, eta leen bezala ekarri, eta berdin -3- ra; -4- garrenera eltzen danean, gelditu egiten da, arria bultzat baño leen, eta ondoren -4- etik -5- era botatzen da arria; gero, leen bezala arriari bultzat, eta -4- garren kuadroan berriz planto; kuadrotik kuadroa gero bear da eraman, kanpora atera bitarte, Marriarik ikutu gabe ateraten ez duenak galtzen du, eta beste batek ematen dio asiera.

SORGIN MARRA

Arri-losa batean kuadro bat egiten da klerarekin, eta marra baten erditik bestearen erdira, eta xoko-angulo batetik parekora, beste bi marra. Jokazaille bakoitzak iru arri-xapal ditu, eta txandaka, marra-gurutzetan, arriak jartzen asten dira, eta txandaka mugitzen. Marra batean, iru arriak xuxen-xuxen jartzen dituenak irabazten du. Edozein arri mugitu ditek, baida.

Irabazle au bereizteko, eta polita erakusten digu Inbuluzketak (Eusk. err. alde.—286); ISKILIN JOKOA deitzen dio, eta berezko joko bat bezala dakar. Toki leun batean, 3 arri xapal edo geiago jartzen dira; baten azpian iskilin bat gordetzen da; mutiko danak baño erdikoa ez; ura irabazlearena inguruka auxe kantatzen dute: // ATXI MOTXI ZILLARRA // GAN OLLARRA // ARDI MAINGU BILLERA // TANTO PUTENTO TXIMIKOTO // Gero bakoitzak arri bat jasotzen du eta Iskilinba (ORRATZA) tokatzen zaionak irabazten: onek bere arria kuadroaren edian jartzen du, leen aitatu bezala. SORGIN MARRA jokoari, ARTZAIN JOKOA ere deitzen zaio.

A. A. E.



Erronkal eta Salazarko lur-berritzaleak Baztan eta Maldaerrekan



Baztango eta Maldaerreko gaztain, zuaitzak inñertu zirelaik, emengo gizonak ebaki zuten oyen tokian lur-berritzia, aipetuk baitziran ortarako, deitu zituzten Erronkal eta Salazarko langile batzuek.

Bortz gizon oyetatik nere sortu etxean artu zuten lan ori egiteko alde batera 1899'ko urtean. Lekarotzen gure etxetako iretze zelaietara lau edo bortz neguz etorri ziran lurrak landatzera.

Ayen soñekuak eta oiñetakuak ikusita gu aurtxo gaztiak arritu giñan; nondik etorri ote ziran gizon oyek eta euskara atzerrikoakin?

Gu mutiko koskorak, amar amabi urtekin bakarrik, laister adiskidetu ginen langile oyekin eta asi-giñen solasean betiko ezaunak balire bezala, eta egoten ginen begira ayen lan indartsuai, arrituik begira.

Ayek bazakiten euskaraz eta erdaraz. Guk guti erdaraz. Debekatu ginen euskaraz mintzatea irakaslariañ gandik, baño naiago ginen euskaraz mintzatu langilekin naiz mintzo arrotza oyena gure-tako. Laister yarri ginen ayen mintzora.

Langileok ziren fierrak eta gogorak. Egunian lan aundia egiten zuten. Argitu orduko yoaten ziren lantegira eta utzi iluntzian.

Otorduetan bada eta illarra gorria, txingarra, txistor pusken bat aldizkatuz, bilkorraikin apaindua.

Laneko soñekuak, atorra, soin, txamarra, galtza motza azpikoaldian bazterretik edekia, galtzerdi, txapinua eta abarka. Gerrontzian gerriko zabala eta larruzko mandarra motza bat. Buruan zapel borbilla egalde bildua goyaldera. Euriendako bizkarrian ardi larru apaindu bat.

Lana egiteko tresnak: pikocho, aitzur aundia eta burdinezko palanka.

Gizon oki esker egin ziren landatu lur zati aundiak Baztanen eta Maldaerrekan, eta orain daude belay eta alor ederrak lenago galdu ziren gaztain eta zugaiz tokian.

Donezteben, 1969'ko Urrilla.

MIGUEL PLAZA AURQUIA



BAZTAN

F E R I A K

Baztandar nekazariak dioten bezala erratan ahal dugu, «biarriko Urrie» eta bai arrazoñarekin, yaz bezala aurtan ere urriko ilabeteak gauzak xuxendu baititu. Ilabete guzian eguraldi guzian ederrak egin dazku eguzkiak ere indarrarekin berotu duela. Eiztariek egun ederrak goxatu dituzte mendietan, naiz ta gehienetan bezala uso guti eskuratu dituzten.

Elizondo'ko feriak ospatu dire eta egun hortan ere eguraldiakin suertea izan dugu, egun hori aski ilun argitu baizitzaikun euri-langar pixka bat ere ari zuela, beharrik gero iguzkiak goibelak urraturik indar aundiarekin agertu zitzaikula eguna ederturik.

Lenagoko feriak eta oraiokak ez dira berdinak. Lenago eta gure aur denboran ere iru egun irauten zituzten eta iruetan yende aunitz biltzen zen. Orai egun bakarra izaten da eta hau ortziraleakin eta egia erran urtetik urtera badirudi gutituz ari dela. Aurtan ere yaz baño yende gutiago ibili omen da, bainan halare Elizondo'ko Urriko feriek izen aundia baitute eta bere fama ongi barreiatua baitago, feri egun huntan yende aunitz biltzen da Elizondo'n, denak egun goxo bat iragaiteko naikeriarekin.

Merkatuko plazan azienda aunitz eta klase onekoa, bazen non auta. Baztandar tratulariek bei gorri aunitz erakutsi zituzten eta Iruñekoek esne-bei ederrak eta onak. Bazen yende puska bat merkatuan, urtean den merkatuak hoberena hauxe izaten baita eta gañera aspaldi hontan ezpaita funtsezko merkatuak egiten. Ez omen ziren esne-bei aunitzik saldu eta erreliste gehiago izan omen zuten bertze gañerako beiek. Azkenengo urte hoketan yendeak esne saltzeari eman dio bainan erratan dutenez orai aunitzek berriz lenago bezala aratxe azteari lotu beharrak omen dire. Merkatuko prezioak erakutsi behar ditut:

Esne beiak	33.000 - 39.000	pezta bakarrak	86	buru Salgai
Bere-hunteko bei antzuak	24.000 - 26.000	»	46	»
Bere-hunteko bei ernari				
edo bere aratxearekin	29.000 - 37.000	»	18	»
Migek	22.000 - 27.000	»	15	»
Aragitako beiak	24 - 34	pezta kiloa bizik	11	»
Aratxeak	62 - 68	»	17	»

Zaldi andana bat ere bazen.

M. IZETA

Lekunberriko Euskal Besta



Urrillaren 19 eguneko Lekunberriko Euskal Bestan parte artu zuen «euskaldun» multzo bat. Lekunberriko gaztedia! Euskaldundu ezazu berriz ere Lekunberri!

(Menak jaunak egiña)

NAHASMENDU GABE

"Principe de Viana", bego zutik anitz urtean

Ulertzaile onari hitz gutti, esan ohi da. Ulertzaile txarrantzako formula ez dut ezagutzen. Beraz, hemendik ote nik era batera adierazia, beste norbaitek beste era ulertzea?

Ez dut uste «PRINCIPE DE VIANA»-ren irakurleei zuzenketarik agertu behar dizkiedanik bere izena ahotan hartzean norbaitek ongi ulertu ez badu ere. Baina, esanak okerreko bidera lerratu baino lehen, noan gauzak bere tokian argi eta garbi jartzera.

Helburu argi gabeko artikuluko batzuegatik: «Artikuluok hobeto ziran «Ya», «Arriba» edo «Fuerza Nueva» bezalako aldizkarietarako, bigarren leerroan «Destinado al Fomento del Vascuence» izenburudunarentzat baino», esateaz, ez nuen kondenatzen «PRINCIPE DE VIANA», batek hala uste izanaren. Ezta berdina, bere kategoriarako artikuluko ondo ez etozela esatea. Kondenatzea izango zan, artikuluko, «PRINCIPE DE VIANA»-n ondo etoztela esatea; edo berdina, «Ya», «Arriba» edo «Fuerza Nueva», «PRINCIPE DE VIANA»-rekin buruabat egitea. Garbi dago, «PRINCIPE DE VIANA» goragokotzat nuelako (eta euskeraren arloan zer esanik ere ez) esaten nuela hori. Beraz, nere aldetik ezta egon aldizkari euskaldun honentzat asmu txarrik eta bai opari onik.

Ez naiz ari zuriketean, zeren bi aldiz aipatua dut Euskaltzaindiaren bilerean, batean erabiltzen duen euskera onagatik eta bestean elkargo honen izenean «PRINCIPE DE VIANA»-ren zuzendaritzari gure goresmenak azaltzeko. Berdin mintzatu naiz, naiz euskaltzale edo naiz edozein euskaldunekin, aldizkariaren aldera hitzik hoberenak agertuaz. Artikulu bat baino gehiagotan aipatu eta goratu dut bere izen ona, eta **Escritores euskéricos** liburuarren 13-garren orrialdean argi eta garbi agerrera izan gure aldizkari inportanteen artean (1).

Baina, orain aipatzen dudana azken artikuluko hori da nere ustez «H»-ren euskeraren alderako probetxuzko bakarra. Batez ere Gereño adiskidearen esaneri esker. Gainera, orain arterainokoak, denak ziren Unamunokeriak; alperrik gabiltzala euskeraren alde lanean, herriak gogorik ez duela (baina inoiz ere ez herria iratzartu behar dugula esanez), euskerak bizitzerik ez duela, egiten dan guztia alperrikakoa dala, eta antzerako arazoak. Beti ideia hoienguz inguruan. Zerbaitean ari geranok samintzen.

Baina azken artikuluko horrek bazuen besterik ere, beingoz beintzat agertzen du euskal aldizkari batek euskeraren alde egiten duen lan bikaina, neri zuzendutako oharretan «PRINCIPE DE VIANA»-ren euskeraren aldeko lana txalotuaz. Bada zerbaite. Hontan neu ere bat nator.

Gure hizkuntzak arnasa duen artean ez dezagun esperantzarik galdu. Eman dezaigun ahal den indarra eta kemena etsipenezko negarrak uxatuaz.

Harira ez badator ere, berak aipatzen duenez, aitortu beharrean naiz Bizkaian euskeraren alde firmatu zuten 50.000-ren arteko bat naizela, eta era berean **Anaitasuna** aldizkariaren laguntzaile urrietariko bat da. Besteen kontuak, euren bizkarrera hipoaz. Baina hau beste kontu bat da. Ez dut hortan sartzekorik, bestek hori eginarren.

Hauzi zaharra, hauzi txarra. Zer esan? Zeren hiru urte daramazkit **Herria**-an nere kontra sartu zen gizon horrek argitu behar zituen bi puntuen zai, bere haritik ateratzen zelako. Hau ere haritik irtetzea da eta hobe uztea. Zeren, guk hemen, haritik irtetzen danari: «ixotakoa», esaten diogu (= pasado de rosca).

Nahasmenduetatik aparte, nere oparirik hoberenak ditut «PRINCIPE DE VIANA»-ren alde, eta bihotz barnetik opa diot iraupena euskeraren onerako. Argi gelditu bedi.

J. SAN MARTIN

(1) Bada ezpada, esan beharra dut **Escritores euskéricos** hau izan dala nere lehen erdal liburua, bi urtean euskeraz norik argitaratu ez nuelako. Pekatu hau, ezin bestean, nere gogoaren kontra egin nuen. Eta, hemen, euskerarena ezta errua.

EUSKAL KANTA BERRIAK

Legasako kartari erantzunez

PRINCIPE DE VIANA-ren 44-gn. zenbakian irakurri nuen, 4-garren orrialdean, euskal kanta berrien liburuxkaren galdea. Nafarroako Legasatik etorren kartatxo hari azpikaldean jarri zioten erantzuna ongi emana zen: liburuxkak erosi beharrean diskoak erostea. Diskoak, kantak bere doinuak geroan emateak, naiz entzuteko, naiz ikasteke, bere alderik hoberenak ditu, noski. Baina bere kalteak ere baditu, ekonomiku aldetik, zeren diskoak garesti xamar daude hanitz kantarenak erosi ahal izateko, eta Legasako kantazaleari lagundu ahal izateko, zenbait liburuxkaren berri ematera nioja.

1967-an, nik dakidanez, kanta berri hiru liburuxka argitaratu ziren, eta hauek dira: Euskal kanta berri izenekoak, L. Urdapilletak bilduak, 63 kanta dakarzi eta Iruñeko Graficas Arga inprimerian argitaratua da; Abestiak, Durangoko Asociación Guerediaga dalakoak gertatu, 100 kanta ditu baina beretariko asko ez dira berriak, orotarikoak daude; Eskual kantak (gaineke azalean Chansons basques jartzan du, kanta

guziak euskaldunak izanik ere), Editions Hernani (2, rue des Déportés. Hendaye), 269 kanta ditu, zahar eta berrien artean.

Hor bada zer hauta. Gainera, urte berean, beste liburuxka bat ere argitaratu zen kanta gutti batzuek berriak dituela, baina zaharretarik liburuxketan egin denik bildumarik orokorrena noski: Kanta, kanta, khantore, P. Lafittek eta L. Dassancek gertatu, Baionako Kordelieren irarkola argitaratua.

Aipatzen hasi geranez, Donostiako "Aunamendi" argitaldaria 1968-an argitara emanak ere merezi dute, bi liburutan eta erdal itzulpenez, gutti batzuek berriak eta gehienak zaharrak, Cancionero popular del país vasco izenez. Hemen musika idatzia ere bada.

Igazko urte berean, 1968-an, berri argitaratu zan Cancionero popular vasco, R. M. Azkue-rena, Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca-k emana, Bilbaon. Hau ere musikaz eta erdal itzulpenez. Mila ta bat kantako bilduma.

J. SAN MARTIN

MUGERZA GOTZAIA (APEZPIKUA)



Zortzi bat urte ba dira prantzizkotar praille bat San Ramon de la Nueva Orango gotzai, Saltako probintzian Arjentinan, izendatu zutela entzun nuala. Nungoak ote ditu bere gurasoak ni orduan galdetu nintzan. Garai artan Buenos Airesen bizi nintzan eta urte batzuk igaro ziran nik ikusi eta bere aurrekoak nungoak ziran galdetu nion arte. Abizen edo apellidu orrek ezto ukatzen. Bere aita gure aldekoa zuan, Larraungo Bentas de Urriaran bertan jaioa. Orain urte terdi baño geixago jaiotetze artan bere izebarekin, aitaren arrebarekin, egon nintzan. Beti gotzaiari gorentziak eman bearrean negon baño emendik lareun kilometrorra bizi zan. Saltara bertara gu-

txitan etortzen zan, eta orrengatik etzan erraza berearekin biltzea. Izparringitik jakiten nuanzan emen zebilella nik ikusi orduko, beste alde batera jotzen zuan. Azkenengoan prantzizkotarrak esan zidaten Buenos Airesera eraman zutela geizki zegoelako. Min bizia edo kantzerra zeukan. Bi edo iru aldiz operatu zuten eta an bost illabete igaro ondorean Jaungoikoak bereganatu zuan gotzai maite au.

Naiz gurasoak naparrak izan, bera Arjentina'ko Kordoban jaioa zan. Ameiru urtekin prantzizkotarretara joan zan eta ogeitabost urtekin, milla bederatzi eun eta berrogei ta seian lenengo meza ospatu zuan Gabonetako jaietan. Gizon azkarra eta buru onekoa bai zan, bere Nagusiak Erromara baldi zuten ikastera. Andik etorri zan filosofian dotoratuta. Professore eta erretore bezela lan egin ondorean milla bederatzi eun eta irurogei eta bateko uztaillaren amalauan San Ramon de la Nueva Orango lenengo gotzai izendatu zuten eta andik iru illabetera egin zuan sarrera bere lantegian. Oso gazte il da Mugerza gotzai. Berrogei ta zazpi urte besterik etzuan.

Nolakoa zan Mugerza gotzai? Prantzizkotarra izenez eta izatez. Beti pobre. Pobre ez, oso pobre. Naparroko erri txikinetako eleiza bere katedrala baño ohea da. Emen ere katedral ederrak ba dira, baño Oranek eztauka. Oran bizitzeko oso osasunkeiza da. Bero aundiek, eltxuek asko eta nolaneikoak, humedade aundia eta abar, bertakoentzat eta batez ere bertakoak eztienekoentzat oso zalla egiten dute orko bizitza. Tropikuen bertan egoteakin orko bizimodua benetan edozeñentzako latza da. Egarri noiznai izaten da eta uda edatea kaltegarri izan ditek, ameba bixixuengatik. Alako toki batean bizi izan da Mugerza gotzai. Iñoiz ez gotzai eta ez apaiz ikusi ez tuten tokietara an joaten zan Mugerza gotzai zaldi gañean ordu askotako bide luzeak ithoteko bereekin igarota. Alako gauzak ikusita nola maite zuten artzai on au bere ardiak! Benetan Kristoren langille on bat zan. Langillea eta ona zalazok aita bat bezela maite zuten orantarrak. Beti eta noiznai edozeñentzako atek zabalik zeuzkan. Bere oroigarria ezta erraz aztuko alderdi auetan. GOIAN BEGO.

FELIPE ARAÑA

Kanbo'ko eskualzaleen biltzarra

P. Lafitte jaunaren itzaldiari ohar bi

ESKUARA MUNDUAN ZEAR...

Bertze zerbaite erraiten digu Lafitte jaunak, «...Funtsea hizkuntzalari andana batek eskuara ari dute ximenki ikasten eta barna-danik ikertzen Suissan, Italian, Alemanian, Autrichian, Rumanian, Rusian, Turkian, Suedan, Holandan, Japonian, Ipar-Afrikian, Ameriketean, Belgikan, Espainian, Frantzia...».

Benetan ohoragarri eta aintzagarri da eskuarak munduan zear orrelako arrakasta daukala jakitea, baño gu beldur orrelako izparrak euskaldunen-tzat ez ote diren kaltegarri. Explikatuko gera.

Ziur, ez da Lafitte jaunaren kasua, oneri «gai bat eman bai diote azaltzeko», eta gañera eskuara gaitan jaun onen nagusitasuna eta maitasuna ondo ezagunak ditugu, baño guk kasu ontz baliatu nai genduke, aspalditik eta sarritan euskera goratzeko erabiltzen ditugun «klitxe» aunitz, bazterretatu bear ditugula errateko.

Eskuara au... eta ura... eta bertzia... Eskuara onek edo ...arek ...edo bertze batek... Eskuara emengo edo... ango ...edo urrunagoko Unibersidadean... eta nik dakida bertze zenbat orrelako «klitxe».

«Klitxe» oiekien, zagia aizez puztutzen degu... Naparruko arno gorritz bete bearrian.

Eta gu beldur «klitxe» oiekien eskualdunak ez ote ditugun ernaitu bearrian, loarkatzen, eskuararen aldeko lana egiña dagoala uste dutelako.

Lafitte jaunak erakutsi digun Erri andana orrek, eskuara ikasten ari diran Erri andana orrek badu, ahatik, bere alde ona: Atzeritarrek eskuara maite eta ikasten dutela, guk eskualdunak ... mespreziatzen degun mentu berian.

— x x x —

¡LAZGARRI DA...!!

Lafitte jaunaren «klitxe» orrek, bein batian Iruñako «El Pensamiento Navarro» deitzen den egunkarian Javier Guerediagak argitaratutako itzak gogoraziten dizkigu.

Guerediaga jaunak dio: «... Es trágico que el euskera que preocupa y apasiona y que es tan singularmente valorado en los medios científicos, que están aprendiendo ilustres profesores, que hacen su autopsia en vivo muchos otros, lo pierdan los que naturalmente lo poseen, con la misma inconsciencia con que venderían un retablo gótico para comprarse una lavadora...».

Eskuaraz bi itzetan: Zoin lazgarri (trágico) den, ainbertze jakintsu ikasten ari diren izkuntza, jakintsu denentzat ain estimagarri den izkuntza, guk, guaurrek mespreziatzen degula ikustia...!!

— x x x —

Ori da egia, eta ori da Guerediaga jaunak dion «es trágico», lazgarri da: Eskualdunak euren izkuntza mespreziatzen dutela!!

Eta gisa ortan, eskuararen berpizkundarako: zer ardura zait neri Japoniako edo... Turkiako... edo edonungo jakintsuek eskuara ikastia, Eskuarrik neskaitilla batek «No sé el basco ni... falta que me hace», «Euskarrik ez dakit eta... bearrik ere» erantzuten badit?

Oraindano eskualdun izandu diran Eskuarrik karriketean, Saran... Espeletan... Elizondon... Markinan... Guernikan... ez bada geiago eskuararik entzuten...?

Eskualzaleen Biltzarreko Jaun Presidentak —eta mingarri zaiku erratia—, Kanbon eta Donibane Lohitzunen, Ikastolak eta Begiraleak eraturako bilkuretan, eskualdun entzuleen aintzinean, ¡PRANZESEZ MINTZO BADA...!!

Ipar-Afrikian eskuara ikasten ari diranak etorriko dira Euskalerrira, guk mespreziatzen degun izkuntza berbiztera...?

— x x x —

AZKEN ITZ. Urbildu gaitezen Erriarengana, eta urbildu ESKUARAZ MINTZATUZ.

Nagusitu dezagun eskuara Erriaren aintzinean EXEMPLUEREKIN, gure ezañetan erabilliz. Eta... ¡jazken atsetan gira!! Ez daukagu denbora galtzerik.

DR. HERNANDORENA

OARRA.

Guk artikuluko au idatzi ondoren, Donostiako «El Diario Vasco» izeneko egunkariak eta Euskaltzaindiak 1969 an Diputazioan egindako bilkuraren ondotik, «KLITXE» au idatzi du: «NOBLES BODAS DE ORO...» izendatzen du artikulua eta bertziak-bertze erratan du: «...arranca su ser de profundas y remotas lejanías históricas... suma de siglos probablemente formidables... idioma sin parientes conocidos... magna joya lingüística... el más viejo idioma de nuestra Península... estupenda joya filológica...».

¡Ori dana, ez bertzerik...!!

Se autoriza la copia para la investigación.

© GOBIERNO DE NAVARRA

GRAFICAS NAVARRAS, S. A. (GRAFINASA) - M. DE FALLA, 3 - PAMPLONA - D. L. NA. 319-66



HERRIZ HERRI

**ETXARRI
ARANAZ**

Hitz auekin nahi ginuke esatea gure hizkuntzaren alde Etxarrin egiten ari dana eta zer egin ditek emendik aurrera.

Juan dan urtean seroren ikaste-txean, nahi zuten aurrentzat, euskerazko eskolak eman dira. Euskera eztaikienak ikasteko bidea eta ba dakienak hobeki mintzatzeko. Lau-rogei bat haur joaten ziran. Beste alde batetik, toki berean, neska mutill talde bat biltzen giñan apaizaren laguntzarekin. Ikasgai oiek oso ongi hartuak izan ziran, konturatu bai giñan alfabetatzea beharrezko gauza dala. Aurten ere berriz biltzeko asmoa badugu.

Baño egindakoa asko balin bada, oraindik hasi besterik ez dugu egin. Gazteok apaizaren laguntza gehiago nahi ginduke. Nolako laguntza? Guk bezain ondo ba dakite baño esan beharrian gertatzen gera. **Lendabizi, Etxarriko elizan ez da euskeraz behar aña mintzaten. Euskeraz gehiago egin behar dugu.**

Eleizako gauzak euskeraz «entzuten» ez dakigula, esango digute. Baño, nola jakingo dugu dakienak ez ba digu erakusten? Haurrerri, nahi dute gurasoen semeeri, euskeraz errezuak eta abestiak erakusten asi behar dakiote.

Gaztediari deia egin behar diogu. Gure eskutan dago Etxarriko euskeraren joan etorri guzia, eta gure maitasunaren beharretan arkitzen da. Orrengatik, bai elizan eta bai ikastetxetan, etxetan eta plazan, zerbaite egin daiken toki guzietan ezin ditek euskeraren alde al dan guzia egin gabe gelditu. Etxarrin daukagun problema oni ez itxi begirik, gure eskutan dago ta konpontzea.

Aldi hontako nahiko izango degu, baño berriz ere agertuko gera Etxarriko berriekin orri auetan.

Gazte talde baten izenean, Juan Mary Artieda.

— x x x —

Guk «El Diario Vasco'ko» zuzendariari erantzungo diogu: Orrelako «magna joya lingüística bada...», «orrelako estupenda joya filológica bada...».

Zergatik ez duzu astian bein edo... amabostian bein... edo bederen ¡jillean Bein!! eskualdun orri bat ateratzen...?

Euskera maite degun euskaldunak ¡KIN-TZAK! nai ditugu, eta ez aizeak eremango dituan ¡TZAK!...

Ez da asko baño... ori naikua degu.

DR. HERNANDORENA